

## **Gerra zaharra**

*Zeruko Argia*, 678. zk., 1976-03-07: 6.

Gerra, gauza zaharra dugu kanpoko eta etxeko ixtorian.

Geure artekoak, irabazi ditugunean ere kaltetarako izan ditugu. Ikus iazkoak Ganboar eta Oinaztiarren artean, begira gaurkoei  $z$  edo  $h$  bat tarteko dela eta.

Geure folklorea, badugu aitak bere semei sos batzuk zirela bide emandako erakusbide bat.

Ez dugu, baina, ezer ikasten.

Piralak lehengo gerra karlistaz dioena gaurkotu egin behar genuke: "Arrixku berak bildu zituen karlisten artean zituzten taldeak; asmo berak lotzen bait zituen; baina irabazi zutela uste zutenean, zatiketa sortu zen, eta hemendik etorri zen karlisten auzigaltzea eta ondamena".